



Loraldiak 'Ikimilikiliklik' ikuskizuna aurkeztu zuen atzo, Urnietako Saroben.

'Ikimilikiliklik' berpizteko ikuskari berria

Mikel Laboa, Artze anaiak eta Jose Luis Zumetaren lanaren 50. urteurrenean, Loraldiak bigarren zati bat ekoitzi du

✎ Harri X. Fernández
 📧 Ruben Plaza

URNIETA – Mikel Laboak, Artze anaiak eta Jose Luis Zumetak *Ikimilikiliklik* ikuskaria estreinatutako zutela 50 urte betetzearekin batera, beraz gogoratze eta, aldi berean, gaurkotze, bigarren zati bat-edo sortu dute Loraldia jaialdiaren baitan: *Ikimilikiliklik Vol. 2*. Hain zuzen ere, Urnietako Sarobe Arte Eszenikoaren Gunean aurkeztu zuten atzo. Aurre-estrenaldia Gipuzkoako herrialde horretan bertan izango da azaroaren 12an eta estrenaldi nagusia, aldiz, Iruñeko Baluartean egingo dute handik bi egunera. Donostian, Gasteizen eta Bilbon ere ikusi ahal izango da hurrengo hilabeteetan, eta ikuskizun originalarekin gertatu bezala, antolatzaileek nazioarteko bira bat egitea dute amets. Izatez, Laboa, Zumeta eta Artzetarren jatorrizko lana Venezuelako Bienalean ikusi ahal izan zen eta gutxienez hura bidaiatu nahiko lukete datorren

urtean proposamen berri honen sortzaileek.

"Nazioarteko abangoardian kokatu zen" ikuskizun haren "elkarrizketa" sortu nahi izan dutela azaldu zuen Amaia Ocerinek, Loraldiko komunikazio arduradunak. Saroben gauzatu den ikerketa eta sorkuntza prozesua "kolektiboak" "asmo handiko" obra ekarri du. Ederne Azkarate aktore eta zuzendariaren gidaritzapean, Iñaki Salvador musikaria, Orela TX-ko lidere Harkaitz Martínez de San Vicente eta Itziar Navarro, Libe García de Cortazar abeslaria, Intza Alkain aktorea eta Itziar Garaluce artista bisuala arituko dira taula gainean. "Nola gogoratu *Ikimilikiliklik* museoko objektu bilakatu gabe? Nola jaso ondare hori, errepikapenean edo nostalgian erori gabe?". Horiek izan ziren, hein batean, ikuskizuna bultzatu zituzten galderak. Erantzuna irmoa izan zen: iraganarekin "zubi bat" eraiki nahi izan dute, "duela 50 urteko ausardiak eta gaur egungo sorkuntzak" bat egin dezaten. "Proiektu hau ez da omenaldi

bat, elkarrizketa bat baizik", azpimarratu zuen Ocerinek.

IKERKETA IRADOKITZAILEA Azkaratek enkarguz zuzendu duen lehenengo obra da. Egin dituen guztien artean "handiena". Sorkuntza prozesuaren inguruan, intuizioz lan egin omen dute. Zuzendariak gogora ekarri zuenez, *Ikimilikiliklik*-en musika diskoan grabaturik topa daiteke. Zentzu berean, Joxan Artzek idatzitako poemak ere aski ezagunak dira. Aldiz, ez dago inolako ikus-entzunezko erregistririk. Ikerketa fasean zirenean, orain dela mende erdi obra zuzenean ikusi zuten hainbat lagun elkarrizketatu zituztela azaldu zuen Azkaratek. Testiguen oso ondo gogoratzen omen dute zer sentitu zuten ikuskizun iraultzaile haren aurrean: "Ikaragarria, oso fuertea, hunkigarria, oso garaikidea, apurtzailea eta flipatu zutela kontatu digute". Aldiz, ikuskariaren formari, dispozizioari edota bertan gertatzen zenari buruz

elkarrizketatuek ez zuten inolako oroitzaipen zehatzik.

Hori bai, ezaguna den garai hartako materialarekin, bereziki poesia eta musikarekin, "kolaboraziozko elkarrizketa" josi dute. Ariketa, azken batean, honakoa da: garaiko materialetik abiatuta, gaurko egunetik zerbait berria kontatu. Esate baterako, testu berriak egon badauden arren, jatorrizkoak mantendu dituzte. Bestalde, jatorrizko elementuen artean badira zenbait kontu gaur egunera "nahita eta espresuldi oso gordin" ekarri dituztenak, sortzaileen aburuz baliorik baduelako horiek berriro eszenaratzeak. "Elkarrizketak aurrera egin du ikuskizunak aurrera egin ahal eta gero eta geureagoa bihurtzen da. Horrela, haien *Ikimilikiliklik* eta gure *Ikimilikiliklik* nahastu egingo dira, kontzeptualki edo estrukturalaren bitartez azaleratuz haiekiko ditugun gure maitasun, galdera, hausturak edo dena-delakoak", azaldu zuen zuzendariak, gerora zera gaineratuz: "Niretzat ametsa litzateke

gure lana ikusi ondoren, jendeak jatorrizkora jotzea".

ALDERDI MUSHKALA ETA IRUDITERIA Iñaki Salvadorrek ondo ezagutu zituen Laboa eta Artze anaiak. Bere iritziz, oso berezia den zerbait ondu omen dute. Oso prozesu luzea izan dela kontatu du, orain dela bi edo hiru urte hasitakoa. Martínez de San Vicentek aipatu duenez, kolektiboki asko hausnartu omen dute bide horretan. Kode berriak landu dituzte, esate baterako, "spoiler handirik" egin gabe, Orela TX-ko kideek txalaparta jo baino zerbait gehiago egingo dutela iradoki digute.

Alderdi bisuala landu duen Itziar Garalucerentzat ere erronka handia izan da. Adibide gisa aipatu, hein batean jatorrizko ikuskizunaren esperientzia erreproduzitu nahian, orain 50 urte erabiltzen ziren zeluloidezko proiektoreak erabili dituztela. Bestalde, *Ikimilikiliklik* originalaren irudi askorik ez dagoenez, "imajinario indartsu" batekin lan egin dutela ere azaldu nahi izan du. ●